

Hondarribiko Udaletxean, 1980.eko Apirilaren 18an, arratsaldeko lau t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M.^a Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. A. Arana, X. Aranburu, F. Artola, P. Charritton, J. M. Etxaburu, J. A. Etxebarria, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, P. Goenaga, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M.^a Mugika, K. Rotaetxe, M. Ugalde eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzar irekia.

Azken batzarreko agiria onartu ondoan, aita Polikarpo Iraizozkoa, jaiotzez Agustin Zarranz Bermejo zenaren hil berria eman du Villasante jaunak. J. San Martinek egin du gero euskaltzain ohiaren aipamen berezia.

I. BATZORDE LANEN BERRI

Apirilaren 17an, egun guztian eta 18an goizean, Hondarribiko "Ramery" erakustokian, Arrasateko txostengileekin bildu da Euskaltzaindia, gramatika azterketei jarraipena eman nahian.

Euskaltzainburuak Arrasateko adierazpena irakurri du eta, gero, xedeen agerpena egitean, ez garela txostenak ekartzeko bildu esan du. Gramatika gogoan dugula, lan plangintzaren bila gabiltz. Saio zabalak egin beharra ikusten du lehenik, laburpenak gero egiteko. Arturo Kanpionen euskalkitako gramatika atera zeneko mendeurren 1984ean izanik, bitarte honetan mamitu lanen agerpena egin daiteke orduan.

L. Mitxelena jauna mintzatu da gero. Dialektologia presa haundiko lana delarik, horretaz egingo den bilera berezia aipatu ondoan, gramatika arazoari ekin dio. Hitz eta aditz morfologia izan da orain arteko gure gramatika lanen arloa. Hizkuntzaren joskera hartu dezakegula gaitzat hemendik aurrera, esan du.

Gai zerrenda luzea agertu da bildutako guztien iritziak kontuan izanik. Lau sailetan sartu ditzakegu oraikoz aipatu direnak: I. Izen sintagmak, II. Aditz sintagmak, III. Perpaus bakunak, IV. Perpaus elkartuak.

Arratsaldeko bileran, banan-banaka gai guztiak sailkatu dira eta batzorde bat izendatu: Buru, P. Lafitte; buruorde, J. Haritschelhar; idazkaria, P. Goenaga; idazkari-orde, M.^a P. Lasarte; batzorde lagun, Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, eta gaur gramatika lanetan sartuak diren beste zenbait ikerleren izenak jarri.

EUSKERA aldizkariaren batzordea bildu da, gaur goizean, toki berean. Arrasateko lanen argitalpena aipatu da. Elkarrizketa argitaratzeko eragozpenak ikusi-ta, eztabaida luze baten ondotik, txostenak bakarrik agertzea erabaki da. Beren lanak osotzeko gogoia agertu dute egile batzuk eta hilabete bateko epea eman zaie, datorren Maiatzeko bilera arte.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak: J. San Martinek eman du goizeko bileraren berri. J. A. Arana Martijak, erantzuna eman duten euskalarien zerrenda irakurri du gero, bakoitza nungoa den esanez.

Hauteskundeak: eguerdian euskaltzain osoek izan dute beste bilera berezi bat ere, J. M. Lojendio euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko hauteskundeak direla-ta. Hamabi euskaltzain inguratu dira eta beste hiruk beren eskubidea idatziz bialdu dute. Hamabost boto, beraz.

Izen bi aurkeztu dira: J. L. Alvarez Enparantza "Txillardegik", A. Irigoyen, E. Knörr eta F. Krutwig jaunek izenpeturik ekarri da; eta P. Altuna, J. M.^a Satrustegi, A. Zavala eta P. Lafitte jaunek proposatua.

Arautegiko 33, 34 eta 35. artikulua irakurri dira lehenik, hala nola Barne-Erregelen 34, 35 eta 36. hauteskunderen argibide.

Hiru bozketa egin dira. Lehenbizikoan 8 txartel atera ditu Txillardegik, 6 Altunak, eta zuri bat. Bigarrenean: Txillardegik 9, eta Altunak 6. Hirugarrenean: Txillardegik 8, eta Altunak 7.

J. M. Lojendio zenaren aulkia bete gabe gelditu da, beraz, eta aita P. Iraizokoaren hutsunearekin batera, datorren Uztaileko batzarrean izango dira, Beran, bien bozketak. Bi hilabeteko epea dago izenak aurkezteko: Ekaineko batzarra arte.

II. TXOSTENAK

F. Artola "Bordari"k, Hondarribiko mintzairaz egin du txostena. Hondarribia izenaz bere kezka agertu ditu, bertako esaera bereziet mintzatu da, eta ez ditu zenbait hondarribiar ospatsuen izenak ahantzi.

J. M. Etxaburu "Kamñiazpi" jaunak bertako joskera eta esames asko adierazi ditu bere txostenean.

P. Altuna "Etxepareren nahas-mahas" izeneko gaiaz mintzatu da.

Azkenekotz, Alfonso M. Oronoz, Hondarribiko alkatearen hitzekin amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.^a SATRUSTEGI